



## ■ Izena ematea

Urriaren 15erarte

## ■ Eskakizunak nora bidali

Landatur Zerbitzu Kulturalak S.L.  
Euskal Herria enparantza, 1- 1A  
48340 Amorebieta-Etxano

Faxa: 94 630 07 30

e-maila: [landatur@euskalnet.net](mailto:landatur@euskalnet.net)



## ■ Informazio eta dokumentazio gehiagorako:

Debemen eta Deba-Garaia LGE ak, ikasleentzako ibilaldi hauekin lotura duen proposamen didaktiko multzo bat **argitaratu dute**.

Bizi diren ingurune oinarriko kontzeptuak ezagutzen eta lantzen lagunduko dieten aktibitate batzuk eta landa-ingurunea osatzen duten paisaia eta gizakien ezagutza sakonago batean murgiltzen lagunduko dien oinarri bat.

Material didaktikoa **banatzeko eta aholkularitzarako zerbitzu bat dago**, harremanetarako:

LANDATUR 94 630 07 30.



# MENDITIK DEBARROA ITSASORA



## IBILALDI DIDAKTIKOAK

LANDA INGURUNEAREN GIZARTERATZEA  
DEBABARRENA ETA DEBAGOIENA ESKUALDEETAN





**Debarroa, menditik itsasora** egitasmoa landa-garapenerako Debemen eta Deba Garaia elkarteek osatutako ekimena da, udalekin eta hainbat agente publiko eta pribaturekin koordinatuta, gizartea Debabarrenako eta Debagoienako landa-eremuen inguruan sentsibilizatzeko, hainbat kolektibori (ikastetxeak, hirugarren adinekoak, enpresak...) zuzendutako ekintza berritzaileen eta integralen bitartez.

Hemen aurkezten dizkizuegun **ibilaldi didaktiko** hauen asmoa, gure eskualdeetako ikastaldee beren landa ingurunea eta ingurune horretako lehen sektoreko jarduerak ezagutzera ematera izan da. Deba ibaiaren arroan zehar paseatuz, bertako paisaia eta aberastasun naturala ezagutuko ditugu. Era horretan, errazago ulertuko dugu bizimodu tradizionalak nola eragin duten Debabarrenako eta Debagoieneko gaur egungo bizimoduetan eta gure kulturari, etorkizuna nolakoa izango den pentsatzeko aukera ere izango dugu.

Bainan **proiektuaren helburua** ez da Debako bailararen ezagutzarekin amaitzen. Proiektuaren helburua gure **landa-ingurunearenganako kontzientzia eta hurreratze jarrera hartzea da.**

Lehen sektorearekiko sentsibilizatzeko era hobereana, zuzenean landa inguruko eta baserriko lanetan parte hartzea da. Egun batetan zehar landa ingurunean gozatuz, ikasleak baserrietarraren eskutik, bere eguneroko lana zertan datzan ikusi ahal izango du, lehen sektorearen errealitatea eta gaur egungo egoera bertatik bertara ezagutuz. Bisitaldiak **planteamendu praktikoa** dute, ikasleak **parte hartzeko aukera** izango du artisautza edo elikagaiak egiteko **tailerretan**: taloa, ogia, eskulanak,... eguna bukatzean etxera eramango dituenak.

**Jarduera desberdinak dituzten baserrietara egingo dira bisitaldiak**: esne behiak, ardiak, baratza ekologikoa, gaztandegia, fruta eta barazki kontserba-industria, ehundegia, ogi eta gozoki labea, nekazalturismoa, e.a. Gure eskualdean nekazaritza eta nekazal elikagai-industriaren bilakaera historikoa erakusten diguten bisitaldiak ere egingo dira.

Tailerra egiteaz gain, bisitaldi bakoitzean erlazionaturik dauden gai desberdinak jorratuko dira: landa ondarea, ingurune naturala, kultura, historia, ohitura gastronomikoak,...

Ikasturteko momentu desberdinetan egiteko **zazpi aukera desberdin** eskeintzen dira. **Baserrietarrak** ustiakuntzako alde guztiak azalduko ditu.

- Taldeak 25 ikaslelik behera izatea komeni da.
- Partaideak bazkarirako ogitartekoa, txubaskero, mendirako jantzi eta zapatak eraman beharko dute.
- Baserri batzuetan bertan egindako produktuak dastatu eta erosi daitezke.
- Programaren finantzaketa eta antolakuntza, Debemen eta Deba-Garaia Landa Garapen Elkartearen kargura izango da, autobusez egingo den **garraioaren gastua izan ezik**, hau taldearen kontura izango baita.

GAIA	LEKUA	DESKRIBAPENA	GARAIA	IRAUPENA
<b>1.- OHIZKO NEKAZARITZA</b>	<b>Lapaza Baserria ANTZUOLA</b>	Nekazaritza jarduera tradizionala eta ekoizpen ekologikoa ezagutuko ditugu. Eskualde honetako landa ondarea (garaia, errota eta XVIII. mendeko baserria) bisitatuko ditugu.	Urtarrilatik Maiatzera	<i>Egun osoa</i>
<b>2.- GAURKO NEKAZARITZA</b>	<b>Areantza-Etxeberri Elkarte ARETXABALETA</b>	Kalitatezko elikagaiak ekoizten dituzten ustiatuegiak bisitatuko ditugu (esne – behi hazienda eta barazkigintza). Baserrietarrek paisaiaren zaintzan duten garrantzia ezagutuko dugu.	Urtarrilatik Maiatzera	<i>Egun osoa</i>
<b>3.- ELIKAGAIEN PROZESUA</b>	<b>LEINTZ GATZAGA</b>	Leintz Gatzagako historia, historian zehar gizakiaren elikaduran gatzak izan duen garrantzia eta baserriko barazki eta fruten kontserbak egiten dituen artisau – industria txiki bat bisitatzeko aukera izango dugu.	Urte osoa	<i>Egun osoa</i>
<b>4.-TALOGINTZA (TAILERRA)</b>	<b>LASTUR</b>	Lastur landa auzoko biztanleak lan handia egin dute beren paisaia, ondarea eta landa kultura mantentzeko. Gure taloa egiten dugun bitartean guzti hauek ezagutuko ditugu eta azkenean taloa txistorrekin dastatuko dugu.	Urte osoa	<i>Egun osoa</i>
<b>5.- ARTZAIN MUNDUA</b>	<b>Gomiztegi Baserria ARANTZAZU</b>	Arantzazun Euskal Herriko "Artzain Eskola" dugu, bertan gaztagintza jarduera, Idiazabal gazta egite prozesua, artzain kultura eta paisaia ezagutuko ditugu.	Apirilatik Ekainera	<i>Egun osoa</i>
<b>6.- OGIGINTZA (TAILERRA)</b>	<b>Arizaga Baserria SORALUZE</b>	Baserrietarren eskutik barazkigintza eta behi hazkuntza ezagutu eta ogia egiteko aukera izango dugu.	Urtarrilatik Apirilara	<i>3 ordu</i>
<b>7.- EHUNGINTZA (TAILERRA)</b>	<b>Goikola Baserria LASTUR</b>	Artzain kulturari eta latxa ardiari lotuta ehun-tailer txoan artilearekin eta tindu naturalekin jarduera bat egingo dugu.	Urritik Abendura	<i>Egun osoa</i>